

itzulpena: Xabi Borda



# Seamus Hayley



**Munduko  
Poesia  
Kaierak**

# **Seamus Heaney**

itzulpena: XABI BORDA

 **Susasa** literatura

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.  
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.eus/ebook>

- © Seamus Heaney
- © itzulpenarena: Xabi Borda
- © edizio honena: Susa

2017ko urria

Munduko Poesia Kaierak  
bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola  
<http://kaierak.com>

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz  
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea  
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu  
Telefonoa: 943 83 26 55  
Elektroposta: [susalit@armiarma.eus](mailto:susalit@armiarma.eus)  
Webgunea: <http://susa-literatura.eus>

Kaiera irakurri bitartean ez litzateke arraroa izango irakurleari bururatuko balitzaio Seamus Heaney euskal poeta dela. Heaneyren munduaren eta Euskal Herriaren arteko paralelismoak ez baitira gutxi. Castledawson-en, Ipar Irlandan, jaio zelarik 1939an, Heaneyren poesia bat baino gehiago ezagunak egingo zaizkio askori. *Idazketaren mugatik* poema esaterako, non polizia kontrol bateko umiliazio sentipena kontatzen duen. Connemara aipatzen duela, ezin ekidin Julen Gabiriaren nobelarekin akordatzea. Heaneyren poesiaren ezaugarri orokor bat ere Euskal Herriarekin lotuko lukete askok, hots, haren poesiaren eite landatarra. Landa-eremua eta lurra dira Heaneyren poesiaren testuinguru nagusiak, askotan haurtzaroko oroitzapenekin batera datozenak, eta mundu xume eta geldo horren distirak erakusten ditu maiz bere poemetan. Heaneyren berezitasunetako bat da, ordea, hori ez dela inoiz ere erruralismo mitifikatzailean jausten, eta kontrara, mendebaldeko poesia moderno eta garaikidearen historia —nagusiki hiritarra izan dena— aberastu egiten du. Bakana baita Heaney: akademiak eta kritikak goratzen dute, eta, era berean, poeta irakurri eta herritarra dugu.

Arestian aipatutako irakurlearen balizko irudipen hori gerta dadin, Xabi Bordaren itzulpenak ere lagun-  
du laguntzen du. Izan ere, irakurleari heldulekuak es-  
kaintzen dizkio hurre duen poesia bat emateko, bat  
datorrena, bide batez esanda, Heaneyren poesiaren  
izaera herrikoi horrekin. Hala, “lukurreroak” irakurri  
eta Aresti etorriko zaigu burura, edo “zoru etikoa”  
irakurri eta oraindik haragi bizi dugun gatazka.

Honenbestez, modu oso propioan, mundu pre-mo-  
derno bat irudikatzen digu Heaneyk, eta erakutsi mo-  
dernoan izan litekeela orobat nekazari munduaz jar-  
dunda. Era berean, poesia Ipar Irlandan, Europaren  
bazterrean, kokatuta ere unibertsa izan litekeela  
erakusten digu, eta horregatik, modernitatearen  
errelato errazkeriazkoak zalantzan jartzen ditu. Begi-  
rada lokal hori garatzeko beste poeta batzuegan ja-  
rri zuela arreta esan izan zuen inoiz: Robert Frost,  
Patrick Kavanagh, Ted Hughes. “Nire haurtzaroko  
County Derryko esperientzia etxekoarekin, ‘mundu  
modernorako’ arkaiko eta hutsaltzat jo izan nuen ho-  
rrekin, fidatu behar nintzela ikasi nuen. Konfiantza  
hori irakatsi zidaten eta berau artikulatzen”.

Mundu landatar hori bereziki Heaneyren lehen  
poesian dugu nagusi, eta beste zenbait aletan Ipar Ir-

landako gatazkaren oihartzunak topatuko ditugu, *Wintering Out (Negutik ihes)* eta *North (Iparra)* poema liburuetan esaterako. 70eko hamarkadan idatzia, Ipar Irlandako gatazka geroz eta latzagoa bilakatzearekin bat idatzi zituen. Tradizioari ere erreparatu zion Heaneyk, eta Irlandako antzinako poesia itzuli eta birmoldatu zuen. Horietakoa duzue kaier honetan, XI-XII. mendeko *Colum cille cecinit*, zeina azkeneko bilduman, *Human Chain-en (Giza katea)*, argitaratu zuen. Itzultzaile gisa egindako lana ere azpimarragarria da, batez ere antzinako poesia itzuliz baina baita Aleksandr Puxkin bezalako poeta modernoagoak ere. Tradizio irlandar horren arrastoa ere Heaneyk zerabilen ingeles ez-normatiboan antzematzen da, poema batean baino gehiagotan ahots poetikoak berak aitortzen duenez. Hizkuntzarekiko kezka ere sarri azaltzen zaigu eta, *Alfabetoak* poema gogoangarrian adibidez, non mintzaira idatzia ikastearen esperientzia miragarria azaltzen digun.

Aski saritua izan zen bizirik zela, baina 1995ean eskuratu zuen Literatura Nobel sariak erabateko kontsakrazioa ekarri zion, eta XX. mendeko poeta handienetakoen artean kokatu zuen.

BEÑAT SARASOLA

---

# Aitzurrean

Nire hatz erakuslearen eta erpuruaren artean  
Luma motza probak egiten ari da; estu, pistola bat  
bailitzan.

Leiho azpian, marranta baten hots garbia  
Aitzurra lur legartsuan lurrean hondoratzean:  
Gure aita da, aitzurrean ari. Behera begiratzen dut

Bizkarra baratzean makurtzen ikusi arte,  
Hogei urteko tartetik zutitzen da  
Erritmikoki makurtuz patata sailean  
Aitzurrean zebilen tokian.

Bota lakarra gider gainean, heldulekua  
Hanka zainaren kontra palankan.  
Mastrea erauzten zuen, eta ertz distiratsua sakon  
hondoratu

Geuk bildu behar genuen patata berria ateratzeko.  
Eskuekin gozatuko genuen patataren gogortasun  
hotza.

Bai jauna, zaharrak bazekien aitzurra nola dantzatu.  
Bere zaharrak dantzatzen zuen bezala.

Gure aitonak Toner zingirako beste edozein gizonek  
baino

Zohikatz gehiago erauzten zuen egun batean.

Behin, zipotzat paper batekin ondo itxitako

Botila batean esnea eraman nion. Edateko

Zutik jarri zen, eta denborarik galdu gabe bere

zereginera itzuli zen,

Erritmikoki kolpe garbiak joz, sorbaldaren gainetik

Zokorra jaulkiz, gero eta sakonago,

Zohikatz onaren xerka. Aitzurrean.

Patata lizunaren kirats hotza, zohikatz bustiaren

Plisti-plastak eta zaplakoak, ertz batean geratzen

diren puskak

Sustrai bizien bitartez nire buruan iratzartzen dira.

Nik baina ez daukat haien neurriko gizonei

jarraitzeko aitzurrik.

Nire hatz erakuslearen eta erpuruaren artean

Luma motza frogak egiten ari.

Honekin egingo dut nik aitzurrean.



---

# Naturalista baten heriotza

Urte osoan lihozko ezponda herrixka kanpoaldean  
Usteltzen zen; liho berde heldu gabea  
Kirastu egiten zen, soropil handien barrenean.  
Tantaka hasten zen egunero eguzki errearen pean.  
Burbuilak borborrean xalo, euli-mandoek  
Ustel usainaren biran soinu-sare sendo bat ehuntzen  
zuten.

Sorgin-orratzak zebiltzan, tximeleta tantodunak,  
Baina ederrena igel-arrautzen lerre bero  
Eta lodi hura izaten zen, ibaiertzeko itzaletan  
Ur geldia bezala hazten zena. Udaberriro  
Marmelada poteak orban lirdingaz goraino beteko  
nituen

Etxeko leiho-erlaitzean errenkadan paratzeko,  
Ikastetxeko apaletan, eta itxaron eta begiratu  
egingo nien

Arrautzak handitu eta zapaburu igerilari bizkorrek  
Urratu arte. Walls andereñoak kontatuko zigun  
Nola igel aitari igel-zezena deitzen zitzaion  
Eta nola egiten zuen korroka eta nola igel amak  
Ehunka arrautza txiki erruten zituen eta nola

Horixe zen igelen lerdea. Eguraldia ere iragar  
zenezakeen igelei esker  
Hori baitziren eguzkipean eta marroi euripean.

Gerora, egun bero batean, belar gaineko behi gorotz  
plastoengatik

Kiratsa zerienean zelaiei, igel haserretuek  
Lihozko ezponda hartu zuten; hesiak zeharkatu  
nituen makurtuta

Aurrez entzun gabeko korroka zakar baterantz.  
Airea loditua zegoen lelo baxu batekin.

Ezpondaren ondoan igel tripandiak bihurrituta  
zeuden

Soropil gainean; haien lepagain ahulak haize-oihalak  
bezala mugitzen ziren.

Batzuek jauzi egiten zuten: plisti-plastak mehatxu  
lizunak ziren. Beste batzuk

Lasai zeuden lokatzezko granadak bailiran, euren  
buru soilak uzkerka zituztela.

Ondoezik jarri, buelta hartu eta lasterka hasi  
nintzen. Errege likatsu handiak

Mendekua hartzeko bildu ziren eta banekien  
Eskua han sartzen banuen lerdeak lotu egingo  
ninduela.

---

# Bihitegia

Ebanozko legar gisa pilatzen ziren jotako artaleak  
Edo porlana bi belarridun zakuetan bezain trinko.  
Iluntasun lizunduak baserriko lanabes, uhal  
eta goldez osatu armategia biltzen zuen.

Zorua gris sagu koloreko, leuna hormigoi hotzez  
egina.

Ez zuen leihorik, hormapiko bakoitzaren  
Aire-begietan hauts printzen urrea  
Alderik alde. Ate batek bidea ixten zion haizeari

Uda guztian zinka labe baten pare kiskalgarri  
zegoenean.

Sega baten ahoa, pala garbi bat, sardearen hortzak:  
Sartu eta astiro-astiro objektu distiratsu egiten  
ziren.

Gero armiarma sareak sentituko zenituen biriketan  
mamitzen

Eta bizkor larri jotzen zenuen atari argitsuraino —

Eta gauean saguzarrak loaren teilatuen gainean  
hegan,

Begi distiratsuak bekoz beko zuri so

Bazterretan pilaturiko garau artetik, basati, kliskarik  
egin gabe.

Iluntasuna teilatu bat bezala amiltzen zen. Ni lastoa  
nintzen

Aire-zuloetatik igarotzen ziren txorien mokoentzat.

Ahuspez egoten nintzen hartua ninduen izua uxatu  
beharrez.

Bi belarridun zakuak arratoiitsuak bezala hurbiltzen  
ziren.

---

# Sutegia

Ezagutzen dudan bakarra iluntasunera ematen duen  
ate bat da.

Kanpoan, ardatz zaharrak eta burdinazko uztaiak  
herdoiltzen;

Barruan, ingude mailukatuaren kolpe hotsak,  
Aurreikusi ezineko txinpartez osaturiko buztan  
borobila

Edo ferra berriak uretan gogortzerakoan jotzen  
duen txistua.

Ingudeak erdigunean egon behar du,  
Bere unikornio adarrarekin, atze kamutsa,  
Hantxe egongo da higitzeke: aldare bat  
Forma eta musika osatzearren dena emango duena.  
Batzuetan, larruzko amantala soinean, sudur zuloan  
ileak,

Ate ertzera hurbiltzen da, trafiko ilara ziztu bizian  
doan tokian

Aspaldiko apatxen taka-takez oroitzen da;  
Orduan, marmarrean hasi eta barrura sartuko da,  
esku kolpez

Burdin-burdina mailuz jotzera, hauspoari eragitera.

---

# Requiema nekazarien alde

Berokietako sakelak garagarrez beteta —  
Sukalderik ez bidean, kanpaleku altxagarririk ez —  
Bizkor eta inoren oharkabean mugitzen ginen geure  
herrian.

Apaiza lubakian zetzan etzanda eskalearekin batera.  
Herri bat, nekez aitzinatzen — martxa militarrean —  
Egunero taktika berriak asmatzen genituen:  
Zaldi eta zaldunen artera jotzen genuen zuzenean  
astamakilekin

Eta ganadua infanteriaren kontra uxatu,  
Ondoren erretreta joz zalditeria heskai artean  
eraisteko.

Vinegar Hilleko zorigaiztoko konklabea iritsi arte.  
Milaka hil ziren elkarren gainean pilatuta, kanoien  
aurrean kodainak astinduz.

Muinoa gorri, gure olatu hautsiak blaituta.  
Hil-jantzirik eta zerraldorik gabe lurperatu gintuzten  
Eta abuztuan gure hilobien gainean garagarra  
ernatu zen.

---

# Neagh itsasadarraren sail bat

*Arrantzaleentzat*

## Itsasertzean

### I

Itsasadarrak biktima bat eskatuko du urtero.  
Zura harri bihurtzeko dohainak ditu.  
Bere urek herri bat daukate hondoratua.  
Isle of Manek utzitako zauriaren orbana da.

### II

Itsasorako bidea hartzen du, Toomebridgen  
Ur-joanei aurre egiteko ate eta tanga berriak ezarri  
dituzte.  
Aingiraren bidaia eteten dute tarteka  
Eta bostehun harri jasotzen aldiro.

### III

Baina han Antrimgo eta Tyroneko itsasertzean  
Arrantzaleek egoki irizten diote tratuari.  
Buruz buru egiten dute borroka itsasoarekin

Eta miliak nabigatzen dituzte barrura, eta ez dute  
inoiz ikasten igeri.

#### IV

“Horrela, lehenago itoko gara”, diote —

Eta hemen ez dela ekaitzik izaten esaten badiezu,  
Ordubetez eustek lurrera onik itzultzea esan nahi  
duela —

“Itsasadarrak biktima bat eskatuko du urtero”

## Amua

Gauerdian eskuargiak astiroegi doaz soroan.

Zelaian hiru gizon, zeinek bere sudurrari jarraitzen  
dio,

Eskuargiek euren branka eta konpasa proiektatzen  
dituzte.

Hobe da orain kuboaren giderrak zaratarik ez badu  
egiten:

Isiltasunak eta argi bitxiak amua biltzen dute.

Heldu egiozu, baina itxaron



Kizkurtu artean, hatz lodian likatsu.

Utzi egiozu atzera bere tunelean sartzen.

Ondoren tira lasai eta etorri egingo da.

Hosto konkortu eta kokosdunen azpian

Lokatzezko koroetan biribilkatzen diren milioien  
artean

Gutxi batzuk ezinbestean kurruskatuko dira gaueko  
segada hauetan,

—Lurraren haizagailu errugabeok—

Kristal borobilaren neurri perfektuarekin.

Gutxi batzuk ezinbestean limurtuta jausiko dira

Gauerdian eskuargiak astiroegi doazenean soroan,

Arrantzaleek badiarako girnaldak behar dituztenean

Eta lokatz artetik irtetea, berriro nondik etorriko  
diren badakitenean.

---

# Lurra

## I

Alderik alde zapaldu nuen.

Nire igarotze eskubidea baliatu nuen

ih i eta belar txirikordak askatuz

sakan zaharren eta ereindako lurren artetik

eta goldatutako zorutik harriak jaso nituen

munarri txiki bat altxatzeko.

Ubideak garbitu nituen, ezpondak berdindu,

askotan goizean goiz esnatzen nintzen

urruneko soroetatik ostera egiteko.

Ohitura hartu nuen akre horietara

nire azken begirada ez zedin inoiz

okituta edo goserik egon.

Edonora joateko prest nengoen.

## II

Hau guzti hau utzi nuen tokian dago,  
txirikordatua eta zabal,  
uztondo malda luzearen gainean:

hosto zahar umelez egindako emakume bat,  
ihi zerrendak eta teilagilearen apaingarriak,  
estutu gabe metatuak, bere bularrak lasto berriz  
eta uzta-lazoz osatuak.  
Drist pasatzen diren erbi  
iheskorrei begira.

## III

Lurraren soinua nabari dut  
belarraren eta hirustaren azpian hedatzen:

nire belarria lurrean jartzen badut  
isiltasun begizta honen gainean

denbora nahikoz, aldaka eta sorbalda  
lur ezezagunaren kontra jarrita,

danbor hots txiki bat  
entzutea espero dut

eta ez ninduke harritu beharko  
aire zirimolan

neure burua kausitzen badut atzituta,  
txarrantxaz egindako belarritakoa zintzilik dudala.

---

# Euriaren dohainak

## I

Egunetan  
bat-bateko zaparradak eta euri txikia atertu gabe.  
Ugaztuna geldi,  
lastozko hanken gainean lokatzetan,  
bere larruak iragartzen dio  
eguraldia.

Uholdearen mutur zorrotzak  
ibaia igarotzeko harriak miazkatzen ditu  
eta guztia erauziz doa.

Bere bizi-tza  
ibitik igarotzen du inoren marmarrari adi.  
Ur mailari galga jarritz.

## II

Hondatutako soroetan zangoak uretan dabilen  
gizonak  
uholdearen kristala hautsi du:

lohi-urezko lore bat  
bere islarantz ireki da

nola ebaki baten arrasto gorri irabiatuak  
azpil batean.

Palaz berdindutako  
ildo urperatuetan dabil

eskuak aztarrika, nahitaezkoa duen  
atlantida hori. Ondoren

ereiten zuen tokira itzuli da  
eta zerua eta lurra

lur landua haztatzen duten besoen artean  
ohi bezala isurtzen dira.

### III

Euri-urak batzen zirenean  
gau guztian harrabotsa  
izaten zen ibian.

Kalean hezitako belarriek

ohiko solasaldiak  
jarraitu ahal zituzten, haizea  
etxearen hormapikoan zehar,  
Moyola harpa jotzen

hartxintzarrezko ohatzean:  
egun argiz erretenak oro  
euren doinuz mukuru  
eta istil-upelak gainezka

negar luzean.

Entzumena zorrozten dut  
ausentzia bati adi —  
odolaren dei elkarbanatuarekin

dator

dilubio-aurretiko jakintzarenganako nire gosea.

Hilen ahots eztiak

mismisean ari dira ur ertzean.

Galdetuko nieke

(nire seme-alaben hobe beharrez)

galdutako uztez, ibaiko lokatza

glasatzen duen buztin egosizko zolaz.

## IV

Eztarri-hotsez ur gorriak

bere izaera letreiatzen du: Moyola

bera da bere partitura eta harmonia,

emari honetan

iltzatzen ditu bertakoak,

ihien musika, kantore zahar bat

hango behe-lainoak hats eginez

bokalen eta historiaren bitartez.

Ibai hazi bat,



Maitaketa-deia sortzen da  
ni atsegiteko, Dives,  
larre komunen biltzaile hori.

---

# Tollundeko gizona

## I

Egunen batean Aarhusera joango naiz  
Haren buruko zohikatz okrea ikusteko,  
Betazaletako leka-maluta leunak,  
Larruzko txano punta zorrotza.

Lurpetik atera zuten lekutik  
Gertu den zelaian,  
Neguko haziekin egindako azken ahia  
Urdailean mami eginda,

Biluzik  
Kapela, lazoa eta gerrikoa salbu,  
Zutik egongo naiz luzaz.  
Jainkosaren senargai,

Ito arte estutuko zion idunekoa  
Eta bere padura zabaldu,  
Zuku ilunek santu baten  
Gorpu ondu bihur zezaten,

Zohikatz biltzaileen  
Abaraskako altxor.  
Orain haren musu lohituak  
Aarhusen du atsedan.

## II

Biraokerian jauts naiteke,  
Zingira sagaratu  
Gure lur santu izendatuz,  
Eta otoitz egin ernaraz ditzan

Sakabanatutako, laborari  
Matxinatuen haragia,  
Etxaldeetan dautzan  
Hilotz estaliak,

Larruazal eta hortz berritsuak  
Lau haurride gazteren  
Oheak zipriztintzen, herrestan eramanez  
Miliatan zehar muga-lerroen ondotik.

### III

Haren gurdiari tira egiten zion  
Askatasun hits hartatik  
Apurren bat iritsi behar zitzaidan, gidari nindoala,  
Izenak ahoskatuz

Tollund, Grauballe, Nebelgard,  
Laborari jendearen  
Esku zailduei beha,  
Euren hizkuntza ulertu gabe.

Han Jutlanden,  
Barruti hiltzaile zaharretan,  
Galdua sentituko naiz, triste,  
Eta etxean bezala.

---

# Hega-Probak

ONGI ETORRI ZORTZIGARREN BATAILOIKO GAZTEAK.

Pankarta hark probokazioren bat izango zuen gordean harresiko horman baitzegoen margotuta, albiste zaharren goiburuekin, OROITU 1690 eta EZ ERRENDITU, tupustean jaso nituen alderik alde idatzita zeuden mezuok.

Atorra kakia eta letoizko belarridun gerrikoa soinean, auzoko desmobilizatu bat gure ate ertzaren gainean zegoen. Nire aitak txin-txin egiten zuen eskuak bi patriketan sartuta eta barrez hasi zen arrosarioaren ale ozenak erakustean.

“Papista bihurtu al haute hor kanpoan ibili haizean?”

“Ez hadi beldurtu! Hiretzat ostu nizkian, Paddy, Aita Santuaren jantzi-gelatik bizkarra emanda zegoean.”

“Asto bat apaindu dezakek horrekin”.

Haien barre-algarak nire buru gainean aske zebil-tzan, aldarri zakar bat, bi hegazti urduri amil egin eta aireratzen, lurraldean barrena hega-probak eginez.

---

# Mendebaldeko urtaroak

Gaeltachteko nire lehenengo gauean etxeko amonak ingelesez egin zidan: “Ongi egongo zara”. Ilunabarrak argitzen zuen ohe ertzean eseri nintzen errotik erauzi behar izan nuen hizkuntza baten oroiminarekin, hormaren beste aldean irlandera jori bat entzuten zelarik.

Mendebaldera etorria nintzen benetako airea arnasteko. Igarleek karidadeko benten usaina putz egiten zidaten aurpegira, laborarien hilobietako hautsa eta gure fedearen baraualdietako listua nahasten zituzten eta nire ezpainak olio z igurtzi. *Ephete*, urduritu zitzaizkidan.

Lotsagorritu egin nintzen baina hitz solte batzuk baino ezin izan nituen moldatu. Goiko gela hartan igaro nituen egunetan ez zitzaidan etorri hitz egiteko talenturik denak profezia hori bete zain zeuden arren. Hala ere, gogora ekarriko nituen mendebaldeko urtaroak, hondar zuria, harkaitzen gogortasuna, argia bere berezko izateaz behetik gora Rannafasten

eta Errigalen, Annaghryen eta Kincasslaghen gainean: aldareetako harriak bezain izen eraman-errazak, orantzarik gabeko elementuak.

---

# Antaeus

Lur gainean etzaten naizenean  
Goizeko arrosa bat bezain gorri jaikitzen naiz.  
Borroketan ringaren zorua bilatzen dut  
Nire burua hondarrarekin igurzteko

Eta horrek edabe baten eragina  
Lortzen du. Ezin naiz munduaren ingerada  
Zabaletik jaregin, bere ibai-zainak.  
Hemen behean nire kobazuloan

Harkaitz eta sustrai artean hertsia  
Sortu ninduen iluntasunean sehaskatzen naiz  
Eta muino txiki baten gisa  
Arteria guztietatik naiz elikatzen.

Betor hurrengo heroia  
Urrezko sagarren eta Atlasen peskizan.  
Nirekin borroka egin beharko du lehenbizi  
Ospearean erresuma honetara sartu aurretik



Zerukoen eta errege-erreginen artera:  
Eraitsi nazala eta nire jaiotzea berritu  
Baina ez dezala bere asmoa zertu, niri lurra kenduz,  
Nire goraldia, nire erorikoa.

---

# Belderg

“Bata bestearen atzetik azaleratzen ziren etengabe  
Eta uste zen arrotzak zirela” —

Bere etxe ondoan zeuden,  
Begibakar eta onbera  
Lupetzatik ateratako errotarriak.

Zohikatzaren gaineko azala jaso  
Eta ikasle gazte hau aurkitu  
Neolitikoko gariarekin amets egiten!  
Lupetzezko estalkia geruzaz geruza erretiratu  
zuenean  
Emeki pilaturiko mendeak

Berritsu ireki ziren;  
Han zeuden lehen golde markak,  
Harri-aroko zelaiak, hilobi  
Berdatua, mentsulekin eta logela eitekoak,  
Belar-ikatzez zolatua.

Paisaia fosildu bat,  
Mayoko horma-harrietan

Harkaitzetako patroiak  
Gure begien aurrean errepikaturik.  
Alde egitekotan nintzela

Iraunkortasunaz mintzatu zitzaidan,  
Bat egiten duten bizitzez,  
Nola, eremua garbituz eta harriak soilduz,  
Bere etxea hazi egin zen  
Burdinazko, suharrizko eta brontzezko eraztunetan.

Orduan nik Mossbawnez hitz egin nion,  
Lur zingiratsu baten izenaz. "Baina, *moss*?"  
Gure antzinako etxearen doinua  
Konpas nordiko are zaharragoekin gurutzatu zuen.  
Kontatu nion bere oinarria

Soinua bezain aldakorra zela  
Eta lur hartako hortz biko sustraiak  
Hauteman nitzakeela  
*Bawn*-a ingelesen gotorleku bihurtzeraino,  
Kolono britainiarraren muino harresitua,

Edo bestela santutegi bat topa nezakeela  
Eta irlandarra zela pentsatu,

Iraunkorra bai baina zaharkitua.

“Baina zure zuhaitzean dagoen eraztun nordiko  
hori?”

Errotarriaren begitik pasatu nintzen,

Antzinako errota baterako gaia,

Eta nire bihotz-begiekin ikusi nuen

Orekan dauden harrien mundu-lizar bat,

Errotarriak orno-hezurren gisan pilaturik,

Hezur-muin birrinduak zoru.

---

# Dublin bikingoa: zirriborroak

## I

Masail-hezurra izan zitekeen  
edo saihetsa edo beste zerbait  
gogorragoren zatia:  
dena dela, lerro mehe bat

zuen irarria, kaiola bat  
edo araoak egiteko zurezko hesi bat.  
Bere kaligrafiaren  
eginahalei jarraitzen dion

haurraren mingaina bezala,  
otarretik atera ezinda dabilen  
aingira bezala,  
lerroa miretsirik dago

jaten ematen dion  
eskuari itzuri egiteaz,  
moko bat hegaz,  
sudur-mizpira bat igeri.

## II

Hauek zirriborroak dira,  
artisautzaren misterioak  
hezurrean inprobisatuak:  
hostotzak, bestiarioak,

arbasoen eta merkatarien  
bide-sareak bezala  
landutako korapiloetan lotuak.  
Erakusketarako handitu  
beharra daude,  
eta sudur-mizpira  
Liffey ibaia usaintzen duen  
branka migrantea bihurtuko da,

ibiraino harro puztuta,  
kukutuz  
larruzko orrazietan, hezurrezko orratzetan,  
txanponetan, haztakinetan, pisuko platertxoetan.

### III

Buztinezko hilobi  
hezean gordetako  
ezpata luze bat bezala,  
gila hondoa jota dago

ur ertzeko ezpondan,  
oholez egindako kroskoa  
hezurtsua eta herskaria  
*Dublin* bezala.

Eta orain eskueran ditugu  
orno puskek  
hesiaren saihetsak  
ibaiak sortutako ezkutalekuak —

eta ume batek irarritako  
zirriborro hauek,  
drakkar bat, lerro goranahi  
migrantea.

## IV

Nire kaligrafian murgiltzen dena,  
letra etzan bihurtzen da,  
ubera zoomorfiko bat askatuz,  
lupetza barruraino jarraitzen diodan

pentsamenduaren zizare bat.  
Hamlet Daniarra naiz,  
buru-hezurrarena, paraboletakoa,  
estatuaren ustela  
usaintzen duena,  
bere pozoiz enpo,  
mamuek eta estimuek,  
erailketek eta errukiek,



esku-lotu zutena,  
hilobien gainean jauzika  
kontzientzia hartu zuena,  
aiko-maiko, eldarnio batean.

## V

Zatoz nirekin hegan egitera,  
zatoz usna egitera,  
bikingoek ohi duten  
antzeaz —

auzotasunez, euretako eginez  
hiltzaileak, sorginak  
eta tratulariak, lukurreroak,  
zekenkeria eta irabazien metatzaileak.

Harakinaren patxadarekin  
birikak erauzi  
eta hego epelak  
jarriko dizkizute sorbaldetan.

Asaba zaharrok, gera zaitezte gurekin.  
Feudorako nola  
segadak edo herriak antolatzeke  
aholkulari ezin azeriagook.

## VI

“Entzun duzu zerbait”  
galdegin zuen Jimmy Farrellek,  
“Dublin hirian  
dituzten buru-hezurrez?”

Buru-hezur zuriak eta buru-hezur beltzak  
eta buru-hezur horiak, eta hortz guztiak  
dituztenak batzuk, eta hagin bakarra  
dutenak beste batzuk”,

eta historia larria  
“Uholdean daniar zahar bat  
itoko zen beharbada”  
galbahean.

Nire hitzek galtzada-harrizko kaiak  
miazkatzen dituzte, eta ehizara doaz  
sandaliak bezain arin  
buru-hezurrez estalitako lur gainean.

---

# Aitortzarik gabeko legegile baten ametsa

Arkimedesez uste zuen mundua mugitu ahal zuela palankarentzat puntu egokia aurkituz gero. Billy Hunterrek esan zuen Tarzanek munduari dardara eragiten ziola zuhaitz batetik jauzi egiten zuenean.

Estatuaren eta dekretuaren adreiluetan ezagutzen dudana pitzaduran nire makila hondoratzen dut, dantzan nabil Bastilla barruko sekretuen huntz artean.

Ene herri makilatuak bozkarioz aldarri dago kaio-la barrutik. Kateko zakurrak mozalik gabe daude, soldadu batek bere armaren begia zuzendu du nire belarri zulara; zutik naukate begiak zapiz estalita eta eskuak buru atzean ditudala, zintzilik nagoela dirudi.

Ofizialeak esertzeko keinua egin dit — “Ohorea da poeta bat izatea gure zerrendan”. Jostaria eta originala da. “Edozein modutan, hemen seguru egongo zara”.

Ziega barruan, txoko batean lekua hartu dut besoak luzatuz, eta arnasari buelta ematen saiatzen naiz, harlauzak frogatze aldera gainean jauzi eginez. Zure begiak ziren oraintxe bertan judasetik begira zeudenak?

---

# Diozuna diozula, ez ezer esan

## I

Hau idazten ari naiz “irlandar auziari buruzko Iritzien” eskizari zebilen kazetari ingeles batekin Enkontrua izan ondoren. Berri txarrak jada berri ez diren

Neguko kasernetan nago berriro.

Non medioetako kideek eta freelanceek usnatu eta seinalatu egiten duten,

Non objektiboek, grabagailuek eta kable korapilatuek

Hotelak zikintzen dituzten. Garaiak itxuragabetu egin dira

Baina ni arrosarioaren aleetara errendatzen naiz

Politikarien eta kazetarien

Analisetara eta apunteetara errendatzen naizen hainbatean.

Gas kanpaina luzearen gainean zirriborroak idazten  
dituzte

Eta gelignitaz eta stenaz protesta egiten,

Euren taupadetan egiaztatu ahal izan dute  
“eskalada”,  
“erreakzio” eta “haustura”, “behin-behineko  
adarra”,  
“polarizazioa” eta “gorroto sustraitua”.

Hala ere hemen bizi naiz, ni ere hemen bizi naiz,  
berriro diot,

Giza legez hitz egin bizilagun gizakoiekin  
Lehenbiziko kablerik gabeko txostenen goi-kableen  
gainean,

Onespena duten aurreiritzi zahar eta landuen  
zapore aizuna, harrizko zaporea, zurrupatuz:

“Zorigaitza da, bai, ados nago”.

“Non amaituko da hau guztia?” “Dena okerrera  
doa”.

“Hiltzaileak dira”. “Prebentzio espetxealdia,  
ulertzekoa da...”

“Ganorazko mintzaira” lakartzen ari da.

## II

Gizonak esku-beteka hiltzen dira. Lehertutako kale  
eta etxeetan,

Gelignitak soinu efektu ezaguna eragiten du:  
Celtic-ek irabazi zuenean gizon hark esan zuen  
bezala, "Erromako Aita Santua  
Gaur gauean pozik izango da." Bere artaldeak

Barren-barrenean sinetsi nahi du heretikoak  
Azkenean amore eman duela eta zakurra bezala  
belaunikatu dela zutoin aurrean.  
Guk dar-dar egiten dugu sugarren ondoan baina ez  
dugu

Su horrekin ezer jakin nahi. Guk egin behar zena

Egin dugu. Denbora luzea daramagu atzeko tititik  
edaten,

Sorgin batena bezain hotza eta gogorra dena  
irensteko,

Eta mihi muturra erdibitua daukagu oraindik:



Aita Santuaren nota liberalak huts soinua ateratzen  
du

Gau eta egun bihotzak eta leihoak inarrosten  
dituzten

Eztandekin anplifikatu eta nahasten denean.  
(Tentazioa ematen du lerrook “erditze minekin”  
errimatzekoa

Eta gure kinkari berriz jaiotzea diagnostikatu,

Baina beste sintomei ezikusia egitea izango litzateke  
hori.

Bart gauean ez zen estetoskopioren beharrik izan  
Danbor orangisten korrokadak entzuteko,  
Aita Santu eta Pearsereenganako alergikoak).

Bazter guztietan biltzen dira “pelotoi txikiak” —  
Cruise O’Brienena da esana, Burke zirikatzaile  
Handi haren bitartez jasoa — ni hitz lehorte  
gogaikarri baten erdian

Eserita nagoela, amuarekin eta zizarearekin

Tribuko arrain-sardak epigramara eta ordenara  
Erakartzeko. Uste dut gutako edonor

Fanatismoa eta iruzurra bereizteko gai litzatekeela,  
Zoru etikoa zein den jakingo bagenu, *ære perennius*.

### III

“Hemen erlijioa ez da inoiz aipatzen,” noski.  
“Begietan antzematen zaie” eta kosk egiten diozu  
mihiri.

“Alde bat bestea bezain gaiztoa da,” inoiz ez  
gaiztoagoa.

Jainko maitea, bada ordua behingoz arrakalaren bat  
irekitzeko

Seamusi jarraitzen zion erauntsi arriskutsuari  
eusteko

Holandarrak eraiki zituen dike handietan.  
Jardun lasaia eta antze hau guzti hau izanagatik,  
Ez naiz gai. Iparraldeko izu

Betiko hau, lurraldeak eta sasoiak  
Ezarritako mozal estua: bai, bai. “Sei txikiei”  
abesten diet non

Salbatzeak, umiliazioa ekiditea esan nahi baitu,

Eta diozuna diozula, ezer ere ez diozun.

Ke seinaleak gurekin alderatuta garrasi ozenak dira:  
Izena eta ikastetxea aurkitzeko maniobrak,  
Helbideetan oinarritutako bereizketa sotil,  
Ia salbuespenik gabea.

Norman, Ken eta Sidney guztiak esan nahi zuten

*Prod*

Eta Seamusek (deitu nazazue Sean) zalantzarik gabe

*Pape.*

Oi, pasahitzen lurraldea, gakoena, begi-kliskena eta  
buru-keinuena,

Gogoia zepo bat bezala zabalik duen jendearena,

Non mihiak kiribilduta datzan, argi-haria sugarretan  
bezala,

Non gutako erdiak, egurrezko zaldi baten barnean,  
Sartu eta itxi gintuzten greziar artetsuak bezala,  
Setioan setiatuak, morsea murmurio.

## IV

Gaur goizean ihintzez estalitako autobidetik  
Gatibuentzako eremu berria ikusi dut:  
Bonba batek buztin freskoz egindako kraterra utzi  
du

Bide-bazterrean, eta beste aldeko zuhaitz artean

Posta-metrailadoreek benetako barrikada bat altxatu  
dute.

Gora egiten ez duen behe-laino zuri hori zegoen  
Eta déjà-vu bat izan nuen, Stalag 17 bezalako  
Film bat, soinurik gabeko amesgaizto bat.

Badago bizitzarik heriotza baino lehenago? Horrela  
dago idatzita klarionaz

Ballymurphyn. Minerako gaitasuna,  
Miseria koherenteak, mokadu eta hurrup bat:  
Geure patu txikia besarkatzen dugu berriro.

---

# Kantu-eskola

(zatiak)

## Agente baten bisita

Bizikleta leiho-hegiaren kontra zegoen,  
Gurpil azalaren kautxu bilgarria  
Aurreko lohi-babesak estalirik,  
Eskuleku lodi eta beltzak

Eguzkipean berotzen, dinamoaren “patata”  
Dirdaitsu eta oker,  
Pedala zintzilik  
Legearen botapetik aske.

Kapela azpikoz gora zegoen  
Lurrean, eserlekuaren ondoan.  
Kapelaren marra arrakala bat bezala  
Nabari zitzaion ile izerditu berrian.

Askatu egin zuen  
Kontaduriako liburukotea, eta aitak  
Laborantzako kontuak erakutsi zizkion  
Akreetan, lakarietan eta anegetan.

Aritmetika eta beldurra.  
Pistola-zorro distiratsuari begira jesarri nintzen,  
Botoidun hegala zuen eta soka txirikordatua  
Errebolberraren kulatari lotua.

“Labore gehiago?  
Bazka-erremolatxarik? Kuiatxorik? Besterik?”  
“Ez”. Baina ez al zegoen ba arbi ildo bat  
Haziak agortzean patata sailean

Aldatutakoa? Bekatu txikiak zirela  
Ulertu nuen eta jesarri egin nintzen  
Kasernako zulo beltza irudikatuz.  
Jaiki egin zen, borraren zorroa zuzenduz

Gerrikoaren jira bueltan,  
Erregistroen liburua itxi zuen,  
Bi eskuekin kapela atondu,  
Eta begiratu egin zidan agurtzeaz batera.

Itzal bat agertu zen leihoan.  
Parrilako goma elastikoa estutu zuen  
Liburukotearen gainean. Botekin bultza  
Eta bizikleta tirriki, tirriki, tirriki.

## Danbor orangistak, Tyrone, 1966

Maskuri-puxika sabel gainean, pisuak bizkarra  
Harrotzen dio, harrabotsa trakets gordez  
Hor, kokotsaren eta belaunen artean.  
Behean lotuta daraman horrek zutitzen du.

Zur oneko atabal banatan luzaturik besoak,  
Desfilean doa atzetik. Eta nahiz eta danbor-joleek  
Agur egiten dien jendetzaren artetik bidea zabalik  
izango duten,  
Danborrak dira aurretik doazenak, tumore  
erraldoiak legez.

Gutizia izan eta adi entzuten duen edozein  
belarrirentzat,

Bere idazpuru mailatuak "Aita Santurik Ez"  
berresten du.

Tarteka odolez orbantzen zaio ahuntz larrua.  
Inguruko giroak erritmikoki jotzen du estetoskopio  
batek bezala.

## 1969ko uda

Poliziak jendetza jagoten zuen bitartean  
Fallsera tiro eginez, nik  
Madrilgo eguzki errea besterik ez neukan pairatu  
beharririk.

Arratsaldero, pisuko eltzearen berotan,  
Joyceren bizitzaren gorabeherek  
Izerditan nindukaten bitartean, arrain postuen  
sunda

Lihozko ezponda bateko kiratsa bezala igotzen zen.  
Gauak balkoietan, ardoa edanez,  
Umeak ezkutalekuetan ote dabilzan,  
Atsoak leihoan xal beltzekin,  
Airea, arroila bat espainieraz mintzo.  
Berriketan itzultzen ginen etxera izar azpiko  
lautadan,



Non Guardia Zibilaren txarolak

Diz-diz egiten baitzuen lihoak pozoituriko uretan  
arrainen sabelek bezala.

“Itzul hadi,” esan zuen batek, “saiatu jendearekin  
harremanetan egoten”.

Beste batek bere muinotik Lorca ekarri zuen  
gogora.

Heriotzen zenbaketak eta zezenketen kronikak  
ikusten genituen

Telebistan, ospetsuak

Artean gauzak benetan jazotzen ziren tokitik  
zetozen.

Pradoko freskurara jo nuen.

Goyaren *Maiatzaren Hiruko Fusilatzeak*-ek

Horma bat estaltzen zuen — errebeldearen

Beso goratuak eta espasmoa, militarrek

Kasko eta motxilekin, fusilen

Eskuare eraginkorra. Aldameneko aretoan,

Haren amesgaiztoak, jauregiko horman txertaturik

—

Zikloi ilunak, altxatzen, lehertzen; Saturno

Seme-alaben odolaz egindako bitxiekin apainduta,

Anabasa Erraldoia aldaka basatiak jiratuz  
Munduaren gainetik. Baita ere, duelu hori  
Non bi eroek ohoreagatik hiltzeraino makilaz elkar  
jipoitzen duten  
Lupetzan sartuta, eta hondoratzen.

Ukabilez eta ukondoez marrazten zuen,  
Odolez tindatutako bere bihotzaren azala erakutsiz  
historiak eraso egiten zuen  
bitartean.

---

# Triptikoa

## Sarraski baten ondoren

Han zeuden, gure memoriak errunak balitu bezala,  
Fundatzaile egonezinak berriro abian balira bezala:  
Muinoaren gainean bi gizon gazte errifleekin,  
Euren gailuak bezain profano eta irmo.

Nor da gure auziaren erantzule?

Nork egin zuen amets geure baitan bizi gintezkeenik  
Euripean eta argi marruskatuan eta aire zabalean  
lehortutako harrien artean?

Basaltoa, odola, ura, hilarriak, izainak.

Brandonetik Dunseverickeraino

Jatorrizko bakardade neutral hartan

Bizirik atera ziren lore begi txikiez oroitzen naiz,  
Eder-iritzitako, orkidea esetsi bakoez.

Harrizko etxea ikusten dut kaian.

Bizi eremu bat. Leihotik argi indartsua.

Bihotza igo egiten da. Hogeia yarda egin

Txalupetaraino eta berdela erosten duzu.

Eta gaur gure etxera neskatxa bat sartu da

Saski bete patata berrirekin batera dakartzala

Hiru aza-buru, eta azenarioak

Berde eta guzti, lur oraindik bustiaz.

## Sibila

Nire mingaina mugitu egiten zen, gontz lasaigarri  
uhintsu bat.

Galdetu egin nion, “zer gertatuko da gurekin?”

Eta goizean izandako leherketa batek

Putzuan ahaztutako ura mugiarazten duen gisan

Edo teilatua pitzatzen duen arrakala batek bezala,  
Hitz egiten hasi zen.

“Uste dut geure izaera nahitaez aldatuko dela.

Zakurrak setioan. Saurioen arra-suntsitzeak.

Txindurriak.

Barkamenak bere ahotsa eta zaina aurkitzen ez  
dituen artean,  
Odola darien kaskoa jantzitako zuhaitzek berdatu  
eta umeen ukabilen gisako  
Fruituak ematen ez dituzten artean,  
Eta magma ustelduak ninfa distiratsuak

Inkubatzen ez dituen artean... Nire herriak diruaz  
pentsatzen du  
Eta eguraldiaz mintzo da. Euren etorkizuna petrolio  
putzuek  
Baretzen dute erosgai soil bihurtuz. Isiltasuna  
Ontzi txikiek jaulkitako oihartzun artean galtzen da.

Entzuteko belarria gainean luzaz jarri genion lurra  
Ebakita edo isildua dago, eta bere erraiak  
Iragarpen fedegabe batek tentatuta.  
Gure irla zarata deserosoz mukurua dago.”

# Ur ertzean

Devenishen istingorra entzun nuen  
Eta guardiaren eresia-errezitaldia  
Dorrearen azpian. Tailaz landutako monasterioetako  
buruak  
Ogia uretan bezala papurtzen ziren.

Boaren gainean Jainkoaren begiak, hilobi artean  
txertaturiko  
Sexu-ahodun harriak, aurki-ifrentzuak, trepanatuak,  
Nire isiltasunari isiltasunez ihardetsi zion.  
Euriarentzat ur bedeinkatuaren harri bat.  
Madarikazioa.

Horse Islandeko supazter hotz batean  
Tximinia zulotik ortziari begira egon nintzen  
Eta patruilatzen ari zen helikoptero militar baten  
Errota-hots astunak entzun nituen.

Mailu bat eta armiarma sarez beteriko pitxar hautsi  
bat  
Zeuden jarrita leiho ertzean. Naizen guztiak  
Men egin nahi zuen, neure burua eskaini,

Hanka-hutsik joan, umeki gisa edo penitente gisa,

Eta ur ertzean otoitz egin.

Nola ibiltzen ginen lau-hankan oinez ikasi aurretik!

Newryranzko martxan

Itzal egiten zigun helikopteroaz oroitu nintzen,

Atzeraezineko urrats izutuez.

---

# Toomeko errepeidea

Egunsenti batez gerra-gurdi blindatuen konboi  
batekin

Egin nuen topo, kirrinkari pneumatiko gogorren  
ganean,

Haltz adar hautsiekin kamuflatuak guztiak,  
Eta soldaduak entzungailuekin dorreetan zutik.  
Noiztik ote zetozen nire bideetan aurrera  
Eurenak balira bezala? Herrialde osoa lo zegoen.

Igarotze eskubidea nuen, soroak, nire azienda,  
Traktoreen hortzak ezkaratzetan,  
Siloak, ate-hesiak, teila bustiak, berde eta gorriak  
Kanpoaldeko teilatuetakoak. Etorriko dela espero  
denez,

Berri txarrak dakartzan desorduko bisitariarentzat  
Atzeko ateak kisketaz itxita badituzte,  
Norengana jo behar dut nik lasterka hau kontatzera?  
Hazien ereileak, hilarrien harginak...

Oi aurigak, zuen kanoi lokartuen ganean,  
Hemen da zutik eta ixil, zuen urratsen aurrean sutsu  
zutik dago,

Ikusezin, Omphalos geldiezina.



---

# Metroa

Lasterka gindoazen tunel bihurrietan barrena,  
Zu ziztuan aurretik, eztei bidaiarako berokiarekin  
Eta ni, ni jainko bizkor bat bezala  
Zu harrapatu nahian

Ihi edo gorriz zipriztinduriko lore zuri berri bihurtu  
baino lehen.

Berokia baldar mugitu zitzaizun eta botoi bat  
bestearen atzetik

Erori zen, arrasto bat utziz  
Metroaren eta Albert Hallen artean.

Eztei bidaian gaude, batetik bestera gabilitza,  
Promseko kontzertuetarako  
beranduegi,

Gure oihartzunak pasabide horretan hiltzen dira eta  
orain

Hansel bezala nator ilargiak argitu harrien atzetik  
Bidea atzeraka eginez, botoiak jasoz,

Lanparaz argiztaturiko geltoki haizetsu batean  
amaitzeko

Trenak jada joanda daudenean, trenbidea heze,  
Biluzik eta teinkatua ni bezala, arreta osoa  
Zure urratsetan jarria, baina atzera begiratzea baino  
nahiago hil.

---

# Ginebra-patxarana

Egurats argiko ipurua  
neguan zen ilundua.

Ginebraz ondu zituen basaranak  
eta beirazko ontziari zigilua.

Tapa kendu nionean  
biltegian hedatzen ari zen  
zuhaixka baten gelditasun garratz  
asaldatu berria usaindu nuen.

Isuri nuenean  
ertz bizia zuen  
eta gori zegoen  
Betelgeuseren pare.

Topa egiten dut zuengatik  
buztinzuri ilunean, basaran  
urdin-beltzok, mikatz  
eta jatorrok.

---

# Alfabetoak

## I

Aitak eskuak elkartzen ditu

Eta erpuruaren eta hatzen itzalek kosk egiten diote  
hormari

Untxi baten burua bailiran. Badaki eskolara joaten  
denean

Gehiago ulertuko duena.

Han, klerarekin kea marrazten ematen du lehenengo  
aste osoa,

Gero Y deitzen dioten kakodun makilatxoak  
margotzen du.

Hauxe da idaztea. Beltxargaren lepoak eta  
beltxargaren bizkarrak

2a osatzen dute, eta orain ikusi eta esan biak egin  
ditzake batera.

Bi zutabe eta beste bat zeharka arbelean

Batzuek “ah” eta besteek “ay” esaten dioten hizkia  
da.

Irudiak daude, goiburuak daude, lumari eusteko  
Modu egoki bat eta beste bat desegokia dago.

Lehendabizi “kopia” egiten da, eta gero dator  
“Ingelesa”,  
Zuzen dagoena aitzur txiki oker batekin markatzen  
da.

Tinta-ontzietako usaina zabaltzen da gela isilean.  
Leihoan mundua dago erdi etzana, O koloreztatu bat  
bezalakoa.

## II

Deklinazioak hosanna bat bezala esaten genituen,  
Estratuetan zutabez zutabe,  
Elementa Latinaren *Lehen Liburua*,  
Haitzurdinezko eta mehatxagarri, bere baitan  
hazten zen bitartean.

Haritz-basoko patroiaren izena zuen  
Ikastegi zorrotzago batean hezi zuten

Non klaseak kanpai hotsen dilindan aldatzen  
baitziren

Eta etxean bezala sentiarazten zuen kaligrafia  
berriaren

Itzalagatik utzi zuen latindar foroa.

Alfabeto honen hizkiak zuhaitzak ziren.

Hizki larriak loretan zeuden fruitu arbolak,

Idatzitako lerroak ubideetan korapilatutako  
basalarrosen gisakoak.

Hemen, txanodun janzkiekin eta oinutsik,

Guztia asonantzia eta egurrezko notekin kiribildua,

Poetaren ametsa pixkanaka etorri zitzaion

eguzkiaren argitasuna bezala

Eta sasi ilunak zeharkatuz barrenean errotu  
zitzaion.

Delako beste idazketa hori ikasten du. Bera da luma  
zurién taldea

Soro zurira bideratu zuen eskribaua.

Bere logelaren ate inguruan zozoak dabilta joan  
etorrian.

Ondoren bere buruaren ukazioa, baraua, hotz-  
beltza.

Zenbat eta iparralderago orduan eta gogorrago  
diren araei leial

Mahaian jartzen da berriro ekiteko.

Kristoren igitaia sasi artean egon da.

Biluzik eta merovingiar hazi egiten da idazkera.

### III

Mundua biraka ibili da. Zurezko O batean zutitu da.  
Shakespearez ari da. Gravesez ari da.

Denborak ikastegia eta ikastegiko leihoak eraitsi  
ditu.

Belarretan ari direnek inprimatutako testuak  
bezalako azao trinkoak uzten dituzte

Lambdak itxuratuz belar sortekin galtzuetan,  
Eta patata ildo bakoitzaren delta aurpegia  
Ahurka berdintzen zen eta izotzari aurre egiteko  
eran egokitu.

Amaitu egin zen dena, ate bakoitzaren gainean

Jagole egoten zen zorte onaren ferra-omegarekin  
batera.

Musika-kode erako hizkuntza batek, erabat airean  
Constantinok zeruan irarritako IN HOC SIGNO  
bezala,

Oraindik aginpidea dauka; edo necromantea

Koloretako mundu baten irudia jartzen zuen  
Bere etxeko ganga itxurako sabaian zintzilik  
Era horretan unibertsoaren irudia  
Eta “ez gauza bakunak soilik” topa zitzan haren  
begiradak

Atzerrira joaten zenean. Astronautak bere leiho  
txikitik

Behean utzitako guztia ikusten du,  
O goitua, urtsua, bakarra, argitsua  
Ovum erraldoi eta jostari bat bezalakoa —

Edo kontzientzia hartu aurreko begirada galdua  
Denok zirraraz igeltseroak eskailera gainera igota  
Ate burua pala txikiaz atontzen zuenean bezalakoa  
Hizki arrotzez gure izena bertan idatziz.



---

# Terminus

## I

Han-hemen maiseaketan nenbilela topa nitzakeen  
nola ezkur alea hala torloju herdoildua.

Begirada jasotzen banuen fabrika bateko tximinia  
Eta mendia lozorroan.

Entzuten jartzen banintzen lokomotora bat  
Eta zaldiaren lauhazka.

Harritzekoa al da  
Gauzak birritan hausnartzea hobetsi izana?

## II

Urtxintxaren uzta zuhurraz hitz egin zutenean  
Gabonetako oparien gisa egin zuen dirdira.

Mammonaren bidegabekeriaz hitz egin zutenean  
Nire patrikako txanponak ekonomikako txaparen  
gisan goritu ziren.

Manifestarien gainkostuak eta manifestarien  
gainkostuen bankuak  
Erreklamazio bakoitzaren muga pairatuz.

### III

Bi perrail errazago dira eramaten bakarra baino.  
Ni tartean hazi nintzen.

Nire ezkerreko eskuak burdinazko neurria paratzen  
zuen.

Nire eskuineko eskuak azken gramoarekin  
orekatzen zuen pisua.

Baroigoak, parrokiak batzen ziren ni jaio nintzen  
tokian.

Erdiko harriaren gainera igo nintzenean

Azken konde zalduna nintzen  
kirakoek aditzeko eran hizlari.

---

# Idazketaren mugatik

Tentsioa eta ezereza autoa geratzen den  
errepideko puntu horretan, tropek modelo eta  
matrikula

aztertzen dituzte eta, batek burua zure leihora

hurbiltzen duenean, ohartzen zara gehiago daudela  
atzeko muinoaren gainean, erne zelatari  
zuri begira jarri dituzten armei sendo eutsiz,

eta galdeketa hutsa da dena  
errifle batek seinalea egin eta laxotasun neurtuan  
azeleratuz

aurrera jarraitzen duzun arte —

apur bat hustuago, apur bat nekatuago  
barne ikaraldietan gertatu ohi den gisara,  
azpiratua, bai, eta otzana.

Beraz, idazketaren mugaraino gidatzen duzu  
guztia berriro gertatzen den lekura. Armak  
tripodeetan;

sarjentuak bere on-off irratiarekin zure datuak

errepikatzen ditu, baimenaren zain dagoen

bitartean;

frankotiratzaileak zurekin entseguak egiten ditu

eguzkiari iskin eginez, zapelatz baten moduan.

Eta bat-batean pasa egin zara, akusatuta baina libre

zaude,

asfaltaturiko bidearen eman beltzera

igaro bazina bezala ur-jauzi baten atzeko aldetik

atzean utziz ibilgailu blindatuak, haizetako

distiratsuan

ager-ostenka dabiltzan zuhaitzen itzalen antzeko

soldaduen artetik iraganez.

---

# Aiduru den eskualdetik

## I

Aukerako aldarteen lurraldean errotuta bizi ginen  
etsipenezko hodei-sarda garai baten azpian.

*Gure aldi*an ez esaldiaren baitako galera  
zurrumurrua,

*Zaindu* edo *Gorde Gaitzazu* otoi egitean etendako  
zainak,

goresgarri ziren, egun harekikoak egiteko adina.

Urtean behin zelai zabal batean biltzen ginen  
dantzarako oholtzak eta karpak zituena  
non umek antzinako hizkuntzan buruz ikasitako  
abestiak abesten baitzituzten.

Ermandadean borrokan ibilitako enkante-gizon  
batek

jakin bagenekizkien irainak

zerrendatu zituen, baina berak ere,

nire ustean, ez zituen haiek ekintzarako deitzat  
hartzen.

Bozgorailuek burdinazko ahoz airea inarrosten  
zuten,  
baina inor ez zen asaldatzen. Lehendik bagenekiena  
berretsi zigun.  
Ereserki matxinoarekin elkartze hari amaiera  
ematean  
etxerantz abiatu ginen eta errepide kontroletan  
ordu estrak egiten ari ziren militarren ohiko  
jazarpenera.

## II

Eta hurrena, bat-batean, aldarte aldaketa hori.  
Liburuak zabalik argindarra iritsi berriko  
sukaldeetan.  
Bizitza esne behien saihetsean  
lozorroan eman zezaketen buru gazteak lanpeturik  
zebiltzan  
zoladura jarriz eta euren lehenbiziko harbideak  
marrazten  
testu preskribatuen bitartez. Gero etorriko ziren  
galtzada-harri errektangularrak eta aginterazko  
gramatika, demanden aro berri bat.

Baldintzera betirako uxatuko zuten,  
Gure “de profundis”  
intzirietako garaipenari soraio zitzaizkien  
belaunaldikoek.

Eutsiz irabazi egingo genuen ustea  
anatema bihurtu zuten, inteligentziek distira egin  
zuten  
palankek bezain zakar.

### III

*Gogorrena dirudienak behar baino gehiago iraun du.  
Behetik gora datorrenarena da etorkizuna.*  
Arrazoia ematen ziguten baieztapen hauek  
epelkeriaren aingeru guardakoa zen  
isilpeko nagusiaren babesean bizi ginenean,  
mehatxuzko betortza sartzen didate orain  
bizkarrean.

Neure kolkorako “abaildua” hitza errepikatzen dut  
eta buruhas zutik nago tximista metalikoek  
azpilduriko hodei-sardaren azpian.  
Xafla landuen gaineko mailukadak ditut ments,

lemazainaren txosten arteza,  
jakiteko gure artean bat badela senak agindutako  
bide zuzenetik inoiz urrundu ez zena,  
indikatiboan iraun zuena,  
erauntsiaren erdian bere txalupak gora egingo  
duena.



---

# Urtzen ari den uhartea

Inoiz, sustraiak errotzeko lurra topatu genuela uste  
genuenean

Muino urdinen eta hondarrik gabeko itsasertzaren  
artean

Non gure gau itxaropen gabeak otoitzean eta ernai  
pasatzen baikenituen,

Inoiz, ur-gaineko oholak bildu genituenean, etxe bat  
jaso

Eta bertan zintzilikatu genuenean gure pertza ortzia  
bailitzan,

Uhartea gure oinpean hautsi zen olatu bat bezala.

Sostengatzen gintuen lurrak *in extremis*  
besarkatzen genuenean soilik eusten gintuela  
zirudien.

Uste dut han gertatu zen guztia irudipen hutsa izan  
zela.

---

# Arrastoak

## I

Joko-zelaia markatzen genuen: lau jaka lau  
zutointzat,  
Hori zen guztia. Hor zeuden  
Kornerrak eta areak, zoru malkartsuaren azpian  
Longitude-latituteak bezala,  
Batzuetan ados jarriz besteetan ez,  
Unearen arabera. Eta gero taldeak aukeratzen  
genituen  
Eta izenez deitzean gure arteko muga zeharkatzen  
genuen.

Gazteak zelaian eztarria lehertu beharrean  
garrasika  
Eguna azkenetan zegoen arren jolasean jarraitzen  
zuten  
Itsu ari ziren jokatzeko ordurako  
Eta ostikoz jotako baloia beraiengana etortzen zen  
Amets astun bat bezala, eta arnas estuek  
Ilunean eta zelai gaineko laprastek

Beste mundu bateko lanak ziruditen...

Bizia eta lehiatua, azkenik behar ez zuen

Partida. Muga batzuk gainditu egin ziren,

Han bazen zalutasuna, aitzinamendua, nekerik eza

Aldi bikain, ezusteko eta aske hartan.

## II

Gustatzen zitzaizkizun orubean taketez eginiko  
marrak ere,

Listari mehearen lehenengo mutur parean

Zuloa egiten zuen pala bezala. Edo, doi-doi  
tenkaturiko soka

Etxe baten zimenduak markatzen,

Kantoi bakoitzean angelu zuzena eratzen ipinitako  
listoi margulak,

Ohol ebaki berri bakoitza,

Harrigarri maskaldutako belar gainean ezin  
txukunago paratuta.

Edo, lantzeko soroan

Zirrindolari jositako hesola batetik

Bestera doan irudizko lerroa.

### III

Gauza hauek guztiak zure baitara sartzen ziren,  
Batetik atea bera eta bestetik atea zeharkatzen zuen  
oro, dena bat balitz bezala.

Lekua markatzen zuten, denbora markatzen zuten  
eta irekita zituzten.

Uzta-makinak brontzezko arta-itsasoa bitan  
banatzen zuen.

Gindax batek erdiko urak jasotzen zituen.

Bi gizonek trontzarekin igeri daramate

Pago moztu baterantz, euren atzera-aurrerekin  
Lehorrean arraunean ziruditela.



Sinesmenaren objektuei oratuz,  
Biraka jarriz nostalgiaren orbita mugakide batean.

## II

Baina nahikoa ez zen aski. Dena den, nor dago eman  
diotenarekin

Etsitzeko prest?

Gure etxeaz harantzagoko soroetan putzu bat  
zegoen

(“Putzua” deitzen genion. Urez betetako

Zulo bat besterik ez zen, elorri zuhaitz txikiekin

Alde batean, eta abelgorriek zapaldutako

Basatza zingiratsua bestean).

Hori ere maite nuen. Maite nuen usain uherra,

Leku hartako olio-poto bizitza, kate zaharrak

koipeztatzeko olio bezalakoa.

Eta hurrena, hara eraman nuen nire bizikleta.

Aulkia eta eskulekua sartu nituen

Zola bigunean, gurpilekin

Uraren gainazala ukitu nuen, gero pedalei eragin  
nien

Tantaka errota baten hortzen gisa,

(baina alderantzira eta azeri-buztana inarrosiz)

Munduaren ureztatzaile zen atzeko gurpil  
murgilduak

Begiztak eta buztin-pikorrak josi zituen nire begien  
aurrean

Eta busti egin ninduen neure lokatza zahar-  
berriztatzaileaz.

Zenbait astez dirdira zaharreko argi-koroa bat egin  
nuen hantxe bertan.

Gero abatza buxatu, hagonak oxidatu eta katea  
askatu egin zen.

### III

Hori hautsiko zuenik ez zen sortu

Harik eta, zirkuko pista batean, fokupean eta  
danbor hotsean,

Cowgirlak biraka ikusi nituen arte, lakio geldi baten  
erdian

Orbange.

*Perpetuum mobile*. Inoiz ikusi gabeko itzulipurdiak.  
Jauzilariak. Juglareak. Gurpil-dantzak. Bejondeiela!

---

# Dei bat

“Itxaron”, esan zuen, “irten eta bila joango naiz.  
Oso eguraldi ona dago hemen, zopizartzen  
Aritzeko aprobetxatuko zuen.”

Ikus nezakeen

Porru sailean belauniko,  
Ukituz, ikuskatuz, elkarrengandik bananduz  
Zurtoinak, luzatu gabekoak  
Leun atereaz, hauskorrak eta hosto-gabeak,  
Belar txarrak nola erauzten ziren sentitzearren  
laketuz,

Baina baita damutuz ere...

Ondoren neure burua harrapatu  
nuen

Sarrerako ordularien tik-tak hots anplifikatuak  
entzuten

Non telefonoa soilik eta bare egongo baitzen  
Eguzkiak argiztaturiko penduluen eta ispiluen  
artean...



Eta neure burua harrapatu nuen pentsakor: gaur  
bertan baletor

Heriok honelaxe deituko lioke inori.

Gero hitz egiten hasi zen eta ia esan nion maite  
nuela.



---

# Toomebridgen

Non ur bareak

Neagh lakuaren uharkan gainezka egiten zuen

Mundu lauaren ertz batera iritsi balitz bezala

Eta distiratsu jausten zen

Bann ibaiaren etengabeko orainaldian.

Non checkpointa egon ohi zen.

Non laurogeita hemezortzian gazte iraultzailea  
urkatu zuten.

Non ioi negatiboak aire librean

Niretzat poesia diren. Inoiz lokatza eta aingira  
gizenduaren zilarra

Izan ziren bezala.

---

# Mugako kanpaina

*Nadine Gordimerrentzat*

Epaitegiko horman kedar arrastoak goitik behera,  
teilatuta

Zartatuan zulo bat; habeak euripean

Artean txingarretan:

“Erasora” hitza entzun nuenean

Mila bederatziehun eta berrogeita

hamaseigarrenean St Columb's  
Collegen

Arnasestuka geratu nintzen; ezer ez zegoen nire

Eta barnetegiko sabai-gelaz haraindi mugitzen zen  
zeruaren artean,

Heoroteko basakeriaren biharamunean

Mugitu izango zen antzera, isla bareak

Grendelen atzaparrek zingira ertzean utzitako oinatz  
gaitzak betetzen zituen

uraren azalean.

Idatzita zegoen guztiaren,

Eta etorriko zenaren parte nintzen,

Bidean behera lauhazkan klanetako buruzagiekin  
batera

Beowulfek ganbara gainean sartu zuen  
Erpea behatzeko, zeruak handios mugitzen  
jarraitzen zuen bitartean.

*Erpeak eta atzapar muturrak, ezproiak oro  
Piztia jentil haren ziztailu eta garroa  
Urkabeko altzairuzko eztenak bezalakoak ziren  
goizeko ihintzetan.*

---

# Ballynahinch lakua

Godi, fanciullo mio; stato soave,  
Stagion lieta è cotesta.

LEOPARDI, "Il Sabato del Villagio"

*Eamon Grennanentzat*

Connemarako udaberri-aratzaren argitan  
Autoa geratu genuen igande goiz batez.  
Distira xarmagarri bat hedatu eta liluratu egin  
gintuen

Eta mendia osorik lakuan islaturik  
Gozo sartu zitzaigun  
Ziriak zuraren mamia bilatzen duen gisan.

Ez oso urrun,  
Baina euren txilioak irits ez zitezen aski urrun,  
Bi itsastxorik murgil egiten zuten  
Behin eta berriz. Gero euren flexio zuri eta  
azkarrak,

Urduri edo agonikoak zirela pentsa zitezkeenak,  
Airean goratze bihurtzen ziren, hegaldi eta eroriko  
irmoak

Uraren gainean — ez ziren etxeetara hurbiltzen  
Diren arimak,  
Baizik eta, airea bera baino askoz ere astunagoak  
izan arren, hegalaria bipilak.

Haiek bistaratzean barruan zer bait  
Urratu zitzaigun, eta giltzari eragitean  
Bira erdian gelditu egin zen,  
Haizetakoari hitz egin zion, nolabait esatearren,  
Alboz, pentsakor, besoak luze bolanteari eutsita,  
Oraingoan bai eginez, baietz, benetan  
Merezi izan zuela geratzeak; gero gidari bekokia  
beheratu  
Eta emeki asaldatu egin zen motorra piztean.

---

# Argi Elektrikoa

Argizari-olioa izoztuta, tximeletaren kedar orban  
ilunak...

Hatz zahar eta eragabe haren  
Azazkal birrindua perla zimur bat zen,

Kuartzo izurtsua, zaborrez beteriko Cumae bat.  
Argi elektrikoa estreinakoz ikusi nuen etxe hartan,  
Eserita zetzan larruz estalitako lotu gabeko  
txapinekin,

Urtea joan eta urtea etorri, murmurio batean  
Ahots harekin egiten zuen hotsik ozenena  
Xuxurla baino ez zen. Biok geunden etsita

Han eman nuen lehenbiziko gauean, negar besterik  
egiten ez nuela

Maindirepean, logelan alferrik piztuta  
Utzi zuten argipean. "Non duzu min, seme,

Jainkoarren, non duzu min?" Premiazko, *Min*



Ezpainkaria, urrunekoa eta zaharra. Harpeetako ur  
beldurgarria  
Moila inguratzen. Haren laguntzeko ezinak ez zidan  
laguntzen.

\*\*\*

Zizipaza eta berrizkatura. Zirimola edo ingeles  
gaiztoa.

Ferryak Belfast Loughen kulunkari eta biraka  
zebiltzan bitartean,

Zipriztinak ontziaren eta kaiaren artean,

Garaiz iritsiko nintzen ni, *Animula*, bizirik  
Bekainak kristalean itsatsita eraman ohi nituen  
goizeko trenean,

Poesiaren “hor-duzu-eta-non-zaude?”

Berezkoak. Haien bizkarra bezalako  
Etxe bizkarrak, tranpadurak eta arrabolezko  
garbigailuak

Trenbidera ematen zuten Ingalaterra ezegonkorreko  
atarietan,

Errentan hartutako baratzean txorimaloa ildoen  
artean,

Gero aldirietako futbol zelai bat, distantziaren  
aienea,

Cloth of Gol soroetako bezalako labore soroak.

Southwarkera ere joan nintzen,

Metroaren aho zulotik argitara,

Mayolaren hatsa Tamesisen “erribera arrotzaren”  
ondoan.

\*\*\*

Bizkar okerreko besaulkian eseriz gero, argiaren  
Etengailuraino iristen nintzen. Utzi egiten zidaten  
eta begira nituen.

Txorten txikiari sakatuta magia egin nezakeen.

Irratiaren gurpilari bira emanda argia pizten zen  
Dialean. Utzi egiten zidaten eta begira nituen  
Nahieran mundu guztiko kateak bilatzen nituen  
bitartean.

Gero joan egiten ziren eta Big Bena eta albisteak

Amatatu egiten ziren. Irratia itzali egiten zuten,  
Guztia zegoen isilik argindarrik gabe, puntua  
egiteko

Orratzen eta tximiniako haizearen hotsa salbu.  
Larruz estaliriko lotu gabeko txapinekin esertzen  
zen,

Argi elektrikoak diz-diz egiten zuen gure gainean,  
izua nion

Suharri zikinari eta haren azazkalaren pitzadurari,  
Plektro bat bezain gogorra, distira dirdaitsuz, han  
egongo dena oraindik

Errosario ale eta orno hezurren artean Derryko  
hilerrian.

---

# Anahorish 1944

“Zerriak hiltzen ari ginen amerikanoak iritsi  
zirenean.

Astearte goiz batez, eguzkia eta barrukietako odola  
Hiltegi atarian. Errepide nagusitik

Kurrixkak entzungo zituzten,

Gero nola isiltzen ziren entzun eta geu ikusiko  
gintuzten

Aldapan behera amantalekin eta eskularruekin.

Bi ilaretan zeuden, bizkarrean fusilak, desfilatzen.

Auto korazatuak eta tankeak eta jeepak.

Eskuak eta besoak eguzkiak erreta. Ezezagunak,  
izengabeak,

Normandiarako bidean martxan.

Ez genekien orduan

Norantz zihoazen, gu zutik, gaztetxo ezjakinak  
artean,

Txikleak eta karameluz betetako tutuak botatzen  
zizkiguten bitartean.”

---

# Zernahi gerta daiteke

*Horacio gogoan, Odak, I, 34*

Zernahi gerta daiteke. Badakizu Jupiter  
Zain egongo dena lainoek indarra hartu bitartean  
Tximista jaurti aurretik, ezta? Bada gaur,  
Lauhazkan etorri da bere zaldi eta trumoi  
gurdiaekin

Ortzi oskarbia zeharkatuz. Lurra inarrosi zuen,  
Eta baita lur azpi itsua ere, Estigia ibaia,  
Suge-errekak, eta Atlantikoaren itsasertza bera ere.  
Zernahi gerta daiteke, dorrerik altuenak

Hankaz gora eror daitezke, goian daudenak  
kikilarazi daitezke,  
Begirunea lor dezakete mespretxatu izan direnek.  
Moko zorrotzeko  
Zoria goitik behera dator, arnasa estuz, bati  
gandorra erauziz,  
Eta hurrengoaren gainean ezarriz odoldurik.

Zoruaq behera egin du. Zeru astunak

Atlasen gainean gora egiten du teontzi baten  
taparen pare.

Higitu egin dira giltzarriak, ezer ez da lehenera  
itzuliko.

Errauts telurikoak eta suaren esporak lurrundu egin  
dira.

---

# District eta Circle

Txirula irlandar baten doinua txirikordatzen zen  
Metroko korridorean gora

Azulejuetako zaindariaekin topo egin ohi nuen  
tokira

Hurbildu ahala, kapela ondoan,

Haren hatzen jolasa, haren bi begiak niri begira  
Salataria ez zen begiratzeko eraz eta, artean

behintzat,

Saihestuko ez nuena, biok atera baikinena kanpora  
Zer ikusiko.

Musikak birundak egiten zituen bitartean

Prest nuen txanponari

Jirak eta birak ematen nizkion, baina azkenean jaitsi  
egin nuen soa

Izan ere, ez al zen ba elkar ezagutzea gure arteko  
tratua?

Bidesaria adostuta, buruarekin agurtuko nuen  
Txanpona berriro patrikan gordetzen nuela;

Berak ere buruaz agurtuko ninduen, begirada  
alboratu gabe.

Tente, aurrera begira, ametsezko aldapatan  
Gora eta behera dabiltzan eskailera mekanikoek,  
Kulunkatze monotono eta leun batekin,  
Eraman egiten gintuzten, zutik.  
Beste nonbait, han behean, makina bat lanean ari  
zen,  
Zarata egiten zuen, azkartu egiten zen, moteldu,  
isildu egiten zen.  
Azuleju zuriek dir-dir egiten zuten. Tunel  
hozkirriagoen haizea  
Isurtzen zen korridoreetan, ments nituen  
Dena estaltzen zuen argia, aspaldiko egun  
misteriotsuak,  
Bazkalorduan eguzki zaleak etzaten ziren parkeak,  
Gorputz axolagabeek berotutako belar moztuarekin.  
Piztueraren aurreko minutuetako  
Piztueraren eszena bat, uda ezegonkorreko  
Eta euren atseginen baratzeko, *habitués*.

Maila bat beherago, nasa jendez betea.  
Multzoaren babesera sartu nintzen berriro,







Horren guztiaren erlikia bakarra bainintzen,  
aurrerantz bultzatua,  
Negarrez ari ziren harri porrokatuz egindako  
Leiho ispilatuan islatua.  
Di-da.

---

# Agur-keinua

Larunbat arratsaldeetan ilara osatzen genuen  
Loudanen harategiaren aurrean. Txahal haragi  
gorria, listari zuria,  
Paper marroia bilgoak egiteko zuzen  
Salmahaiaren ertzarekin ebakitzen zena.  
Saiheskiak eta berna-hezurak  
Bertatik bertara bota, bildu eta begizta txiki batekin  
txukun lotuak,  
Baina artean odola zeriela. Pisu hila zintzilik,  
Inoiz uste izango nuena baino askoz ere astunagoa,  
Nire aitak xemaikoz xemaiko ordaindu bitartean.

Larunbat arratsaldeetan halaber bertako B-Gizonek,  
Arlote arren lanean, herria hartuta,  
Auzotar armatuak, jo goiak eta jo beheak  
desfilatzen,  
Batzuek aitari agur-keinua egiten zioten, pasaeran,  
Tiro egin izan baliote bezala eta nahita huts egin  
Edo, une horretan bederen, zein sokakoa den ez  
balekite bezala.

---

# Höfn

Hiru mihiko glaziarra urtzen hasi zen.  
Zer egin behar dugu, galdetzen dute, harri erauntsia  
Deltako lautadan barrena narran datorrenean

Eta izotzezko estalki hondogabe hau mugitzen  
denean?

Goitik ikusi nuen, tolesdurak eta harri-metak,  
Lurraren gain-azalaren hil gabeko ehotze grisa,  
betiereko hondarrak,

Eta beldurtu egin ninduen bere hoztasunak, oraindik  
nahikoa indar bazuenak

Arnasarekin lurrundutako hegazkinaren leihoa  
izozteko,

Barrurantz hormatzeko soro-lur diamantezkoa

Eta epel-epel, ahoa blaitzen duten ahoko hitzak.

---

# Esna egon izan ez banintz

Esna egon izan ez banintz galdu egingo nuen,  
Haizea altxatu eta zirimolak egin zituen  
Teilatua atabalkatuz astigar zuriaren hostoekin,

Eta jaikiarazi egin ninduen, nigan zen guztia  
pixonaka esnatuz,  
Bizi eta taupakari alanbre-hesi elektriko bat bezala:  
Esna egon izan ez banintz galdu egingo nuen,

Ustekabean eta ia-ia era arriskutsuan  
Etorri eta joan egin zen,  
Etxera itzultzen den animalia bat bezala,

Orduan han haize erauntsi mezularia  
Igaro zen bestela bezala. Gehiago  
Ez itzultzeko. Ezta orain ere.

---

# Wood Road

Zoru berritua, sekula zabaldu gabea,  
Laharrak hartuak bazterrak, Bill Pickering  
Pistola eskuan lurrean etzanda zenean bezala,  
Gaueko errondan, uniformearekin  
Udako zuhaixken ilara azpian kukuturik —

Miliziano berezia.

Ilargiaren argia fusilen kanoietan,  
Bidea ixten duen  
Kamioiaren haizetakoan,  
Pelotoi sutsuko enparauak  
Alboz, zaintzaile leial,

Mulhollandstown jazarriz.

Edo ni egun argitan  
Taxuz paratutako zohikatz  
Zamaren gainean  
Begiramenez, begiak beheratuz,  
Heldu baten pare uhalak haizu eskuetan,

Gurdi zaharra zambuluka.

Abuztuko egun hartan gose grebalariaren  
Beilatokiraino joan nintzen,  
Atari isil bat zeharkatuz,  
Begira zegoen jendetzaren aurretik igaroz  
Gorpua gaubeilan zeukaten lekuraino

Eta ohorezko guardiaren so tinkoa.

Edo bidearen amaieran orbana  
Bizikletako neskatila harrapatu zuen  
Auskalo nondik azkar batean merkatari batek  
Bidegurutzean zakar bira eginez,  
Atzeko gurpila jiraka eguzkipean,

Aurreko argia mila txiki eginda.

Filma ezazu sepia kolorez,  
Margo ezazu tantaka odolez,  
Wood Road egun dena eta izan zena,  
Zoru berritua, sekula zabaldu gabea,  
Esne-marmitaren azpia eta



Busa gelditzeko seinalea belarrak janda.

---

# Colum cille cecinit

## I. Is scíth mo chrob ón scríbainn

Nire eskua zurminduta dago idaztez.

Nire lumak zorrotza du punta.

Bere txori-mokoak tinta kakalardo distiratsu

Urdin-ilun bat isurtzen du.

Jakinduriaren emaria borborrean

Trazu fineko nire esku beluritik:

Gorosti berdatuaren tintazko

Ubidea pergamuan.

Nire lumatxo bizia badoa tantaka

Liburuetan barrena, kosta ahala kosta,

Jakintsuek idatzitakoak ondu nahian —

Eskua zurmintzen didan idaztez.

## II. Is aire charaim doire

Derry nire kuttuna.

Lasaia da, argia da.

Aingeru zurien sardak itzulinguruka

bazter guztietan.

## III. Fil sùì nglais

Begi gris batek Irlandarantz

Begiratuko du atzera baina

Ez du inoiz ikusiko berriro

Irlandako gizon-emakumerik.

*XI/XII mendeak*

---

# Atea zabalik eta ilunpean zegoen etxea

*David Hammonden oroimenean.*

Atea zabalik eta ilunpean zegoen etxea,  
Beraz, goraki esan nuen bere izena,  
Nahiz ordukoan erantzuna isiltasuna izango zela  
jakin,

Zutik eutsi ninduen adi, hazten ari zen bitartean  
Atzera eta behera eta kanpora  
Etorri nintzen bideraino (orain datorkit gogora)

Kale-argiak ere itzalita zeuden.  
Toki eta une hartan, sentitu nintzen estreinakoz  
arrotz,  
Sarkin bat ia, handik ihes egiteko gogoz

Arriskurik ez zegoela oharturik,  
Atzera egitean baizik, ezatsegin ez zen  
Hutsune bat, hangarra gauerdian bezala

Uda hondarrean aireratze pistako zelaian.